

Adinekoen egoitzak susmopean

Adineko edo zaharren egoitzei buruz arituko gara jarduera honetan. Gai horri buruzko testu bat aztertuko dugu eta bukaeran zure iritzia idatziz emateko proposatuko dizugu.

Ariketa hauek dituzu:

- Grabazio bat entzun eta ulermen-galderei erantzun.
- Testua osatu, *testu-antolatzaileak* bere tokian kokatuz.
- Testuaren eskema idatzi.
- Gaiari buruzko iritzia eman idatziz.



1. Adinekoen egoitzak kinka larrian

Begoña Muruagak adinekoen egoitzei buruz duen iritzia entzungo dugu segidan.

Zuk zer iritzi duzu zentro horiei buruz? Ezagutzen duzu baten bat gertutik?

Entzun grabazioa eta erantzun, labur, galdera hauei:

1) Zeri egiten die erreferentzia aipatzen dituen ehunekoak (%):

- % 60:

- % 75:

- % 75:

2) Begoñak dio koronabirusaren krisiak azalera atera dituen bi arazo aipatu dituela.

Zein dira arazo horiek?

1.

2.



<https://labur.eus/si3ZY>



2. Testua josten

Orain testuaren edukiari erreparatuko diogu. Gaia garatzerakoan, iritzi-emaileak zenbait **testu-antolatzaile** erabili ditu ideiak ondo josteko. Guk horietako batzuk kendu egin ditugu, zuk bere lekuan jar ditzazun.

BEGOÑA MURUAGA IRITZI-EMAILEA. **(1)** zaharren egoitzetan familiakoren bat duten pertsonen kexak, batez ere egoitza pribatuei dagozkienak. **(2)** adinekoei ematen zaien janaria ez dela egokia, langileek ez daukatela behar bezalako prestakuntzarik edo egoitzan ez dagoela jende nahikorik bertakoen beharrak asetzeko. Bestalde, 2016tik aurrera, Euskal Herriko zenbait tokitan egoitzetako langileek grebara jo behar izan dute lan-baldintza duinen alde borrokatzeko. Orain hori guztia lehertu egin da birusarekin erarik krudelenean. Hildakoen kopurua ikustea besterik ez dago: koronabirusagatik hildakoen % 60 egoitzetan zeuden.

(3) egun hauetan zenbait datu adierazgarri ezagutu ditut. Joaquim Bosch magistratuak, **(4)**, esan zuen orain dela gutxi, egoitzen % 75 inguru pribatuak zirela, eta gehienak diru publikoarekin finantzatzen direnez irabazi handiak dituztela. **(5)** adituek diote egoitza guztiek dituztela gabezia larriak, eta horretan agian Euskadi dela salbuespen bakarra gutxieneko kalitatea mantentzen duelako. **(6)**, hori ikusita garbi dago gaiak eztabaida sakona eskatzen duela. **(7)** sistema publikoaren eta pribatuaren arteko desoreka eta horren ondorioak aztertu beharra dago; **(8)** bada garaia erabakitzeko nolako bizitza-kalitatea nahi dugun gaur egun egoitzetan daudenentzat eta etorkizunean egongo direnentzat.

Pandemiak **(9)** erakutsi digu: dekretuz ezinbestekotzat jotzen diren lanpostuen % 75 emakumeek betetzen dituzte. Aurrekoan aipatu nituen erizainez gain, garbitzaileak, supermerkatuetako langileak eta zaintza-lanetan ari diren emakumeak daude multzo horretan. Oso gauza bitxia ikusten ari gara: gizarteak bigarren mailakotzat jotzen dituen zenbait lanpostu ezinbesteko bihurtu dira birusarekin. Egoera horrek ere zer pentsa eman beharko liguke.

Krisiak zenbait arazo sortu dizkigu eta,aldi berean, lehendik zeuden batzuk azalera atera ditu. Nik hemen horietako bi aipatu ditut. Baina beste asko daude hausnarketa sakona eskatzen dutenak. **(10)** gizarteak beste era batera antolatzeko; **(11)**, okerrago egongo gara hurrengo pandemiari aurre egiteko.

Kendutako testu-antolatzaileak

adibidez ()

alde batetik **(7)**

aprobetxa dezagun aukera hau ()

aspaldikoak dira ()

behin eta berriro entzun dugu ()

beraz ()

bestalde ()

beste errealitate bat ere ()

bestela ()

eta bestetik ()

gai hori dela-eta ()

3. Testuaren eskema

Begoñak sortutako testua 4 paragrafotan dago banatuta: sarrera, gaiaren garapena (2 paragrafotan) eta amaiera. Azaldu paragrafo bakoitzean zer adierazten duen.

1. paragrafoa, **sarrera**:
2. paragrafoa, **lehen argudioa**:
3. paragrafoa, **bigarren argudioa**:
4. paragrafoa, **bukaera**:

4. Zure iritzia eman idatziz

Gai honetaz zer esana daukazunez, zure iritzia ematea pentsatu duzu herri-aldizkari batean. Jarraian duzu gaia, egoera eta egitekoa.

Bidali irakasleari sortutako testua. Nahi izanez gero, hemen landu duguna aprobeitza dezakezu; bukaeran, **transkripzioan**, gaiarekin lotutako **zenbait hitz-konbinazio** eta **espresio** dituzu

Gaia: Adinekoen egoitzak susmopean

Egoera. Aspaldi honetan asko hitz egin da komunikabideetan eta kalean adinekoen egoitzei buruz. Era guztietako irudiak eta iritziak jaso ditugu, aldekoak eta kontrakoak.

Egitekoa. Zeure iritzia ematea pentsatu duzu herri-aldizkarian. Horretarako:

- Azaldu zer informazio zabaldu den komunikabideetan edo kalean adinekoen egoitzei buruz.
- Aipatu nola ikusten duzun egoitza horien funtzioa
- Azaldu dauzkaten alderdi on edota txarren bat, eta hobetzeko proposamenen bat egin.
- Bukatu testua zure esandakoa sintetizatuz, eta mezu edo desio argi batekin.

Gutxi gorabehera, 200 hitz idatzi behar dituzu.



ERANTZUNAK

1. Adinekoen egoitzak kinka larrian

1) Zeri egiten die erreferentzia aipatzen dituen ehunekoak (%):

- % 60: *koronabirusagatik egoitzetan hildakoak*
- % 75: *egoitza pribatuak*
- % 75: *krisi honetan garrantzitsuztat jotako lanpostuak, emakumeak betetzen dituztenak.*

2) Begoñak dio koronabirusaren krisiak azalera atera dituen bi arazo aipatu dituela.

Zein dira arazo horiek?

1. *Adinekoen egoitza gehienak pribatuak direla, finantzazio publikoarekin.*
2. *Koronabirusaren krisian lanpostu garrantzizkoenak emakumeek betetzen dituztela.*

2. Testua josten

adibidez (4)
alde batetik (7)
aprobetxa dezagun aukera hau (10)
aspaldikoak dira (1)
behin eta berriro entzun dugu (2)
beraz (6)

bestalde (5)
beste errealitate bat ere (9)
bestela 11)
eta bestetik (8)
gai hori dela-eta (3)

3. Testuaren eskema

1. paragrafoa, **sarrera:** *Gaiaren gaurkotasunarekin lotzen du, egungo gertaerekin.*
2. paragrafoa, **lehen argudioa:** *Adinekoen egoitzetan pribatuak direla nagusi.*
3. paragrafoa, **bigarren argudioa:** *Krisian beharrezkoenak diren lanpostuetan emakumeak direla nagusi.*
4. paragrafoa, **bukaera:** *Ondorioak atera eta desio bat adierazten du labur.*



TRANSKRIPZIOA

BEGOÑA MURUAGA IRITZI-EMAILEA. **Aspaldikoak dira zaharren egoitzetan familiakoren bat** duten pertsonen keak, batez ere egoitza pribatuei dagozkienak. **Behin eta berriro** entzun dugu adinekoei ematen zaien janaria ez dela egokia, langileek ez daukatela behar bezalako prestakuntzarik edo egoitzan ez dagoela jende nahikorik bertakoen **beharrak asetzeko**. **Bestalde**, 2016tik aurrera, Euskal Herriko zenbait tokitan egoitzetako langileek grebara jo behar izan dute lan-baldintza duinen alde borrokatzeko. Orain hori guztia lehertu egin da birusarekin erarik krudelenean. **Hildakoen kopurua ikustea besterik ez dago**: koronabirusagatik hildakoen % 60 egoitzetan zeuden.

Gai hori dela-eta, egun hauetan zenbait **datu adierazgarri** ezagutu ditut. Joaquim Bosch magistratuak, **adibidez**, esan zuen orain dela gutxi, egoitzen % 75 inguru pribatuak zirela, eta gehienak diru publikoarekin finantzatzen direnez irabazi handiak dituztela. **Bestalde**, **adituek diote** egoitza guztiek dituztela gabezia larriak, eta horretan agian Euskadi dela **salbuespen bakarra** gutxieneko kalitatea mantentzen duelako. **Beraz**, **hori ikusita garbi dago** gaiak **eztabaida sakona eskatzen** duela. **Alde batetik**, sistema publikoaren eta pribatuaren arteko desoreka eta horren ondorioak aztertu beharra dago; **eta bestetik**, bada garaia erabakitzeko **nolako bizi(tza)-kalitatea** nahi dugun gaur egun egoitzetan daudenentzat eta etorkizunean egongo direnentzat.

Pandemiak **beste errealitate bat ere** erakutsi digu: dekretuz **ezinbestekotzat jotzen** diren lanpostuen % 75 emakumeek betetzen dituzte. Aurrekoan aipatu nituen erizainez gain, garbitzaileak, supermerkatuetako langileak eta **zaintza-lanetan** ari diren emakumeak daude multzo horretan. Oso gauza bitxia ikusten ari gara: gizarteak **bigarren mailakotzat jotzen** dituen zenbait lanpostu **ezinbesteko bihurtu** dira birusarekin. Egoera horrek ere **zer pentsa(tua) eman** beharko liguke.

Krisiak zenbait arazo sortu dizkigu eta, aldi berean, lehendik zeuden batzuk **azalera atera ditu**. Nik hemen horietako bi aipatu ditut. Baina beste asko daude **hausnarketa sakona eskatzen** dutenak. **Aprobetxa dezagun aukera hau** gizartea beste era batera antolatzeko; **bestela**, okerrago egongo gara hurrengo pandemiari **aurre egiteko**.

gorriz: lexikoa, hitz konbinazioak

urdinez: espresioak

berdez: testu-antolatzaileak